

IKASLEAREN GIDA GIZARTE HEZKUNTZA PRACTICUM I

**HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
UPV/EHU**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	3
2.	Ikaskuntza emaitzak.....	4
3.	Practicumaren garapena.....	5
3.1.	Lehenengo ekintza: Practicumaren aurkezpen.....	5
3.2.	Bigarren ekintza: Praktikaldi prozesuaren hasierako formakuntza.....	6
3.3.	Hirugarren ekintza: Praktikaldiak erakundeetan.....	6
3.4.	Laugarren ekintza: Jarraipen eta erreflexio mintegiak fakultatean.....	7
3.5.	Bostgarren ekintza: Praktikaldi prozesuaren bukaerako txostena.....	7
4.	Practicumean betebeharreko dokumentazioa.....	10
5.	Practicumaren ebaluazioa.....	11
5.1.	Practicum II-aren tutorearen ebaluazioa.....	11
5.2.	Practicum III-aren instruktorearen ebaluazioa.....	11
6.	Bibliografia.....	12

1. SARRERA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntzako Graduako ikasketen planaren barruan. Unibertsitateko ikasketak Gizarte Hezkuntzako lanbidera hurbiltzen saiatzen da, testuinguruan oinarritutako esperientzia praktikoa bat sustatuz. Practicumaren bidez, ikasleak hezkuntza eta gizarte errealitate hurbiltzen dira eta errealitate horretan integratzen dira, ondoren beren lanbide jarduna zer izango den behatuz, aztertuz eta hausnartuz. Practicumaren bidez, gaitasun profesional batzuk praktikan jartzeko aukera ere izango da.

Prestakuntza aldi honek hausnarketa eta azterketa testuinguru bat errazten du, praktika profesionalak prestakuntza testuinguru akademiko batean sartzeko, hainbat lanbide eskaerari aurre eginez, teoria, praktika eta gogoeta bateratuz, eta Gizarte Hezkuntzaren inguruko diskurtsoak eraikitzen laguntzen duten diziplinekin loturak ezarriz.

Practicum hau Gizarte Hezkuntza Graduoko hirugarren ikasturteko lehenengo lauhilabetean kokatzen da eta 12 kreditu ECTS ditu, praktiketako **175 ordu izanda** ikasleek entitate kolaboratzaileetan gauzatu behar dituztenak.

2. IKASKUNTZA EMAITZAK

Hauek dira Practicum I delakoan lortu nahi diren ikaskuntza emaitzak:

1. Gradu prestakuntzaren eta praktikaldiaren artean erlazio teoriko-praktikoak ezartzea.
2. Talde lanerako erlazio eta komunikazio trebetasunak eskuratzea eta adieraztea.
3. Gizarte Hezkuntza esku hartzeko esparru orokorrak ezaugarritzea eta testuingurutzea.
4. Lanbidearekiko jarrera etikoak eta deontologikoak garatzea.
5. Gizarte Hezkuntzako profesionalen lan profesionalari buruzko hausnarketak egitea, bai idatziz, bai ahoz, bai lanean ari den erakundeen kulturari buruz.
6. Gizarte Hezkuntzako profesional gisa jardutea, hezkuntza ekintzetan jarrera gogoetatsua erakutsiz.

3. PRACTICUMAREN GARAPENA

Practicum I-a, bost ekintza desberdinen arabera egituratzen da:

1. Practicumaren aurkezpena (taldekoa)
2. Praktika prozesuaren hasierako formakuntza (banakakoa eta taldekoa), EHUko tutorearekin batera
3. Praktikak zentroetan (banaka), entitateko instruktoarekin gidatuta
4. Hausnarketarako eta jarraipenerako mintegiak (taldekoa, EHUko tutorearekin eta mintegia osatzen duten ikasle-taldearekin batera)
5. Praktiken prozesuari buruzko txostena (banakakoa)

3.1. LEHENENGO EKINTZA: Practicumaren aurkezpena

Helburuak

- Ikaslea practicumean lortu beharreko gaitasunen eta ikaskuntza emaitzen testuinguruan kokatzea.
- Lehenengo praktikaldiaren metodologia aurkeztea: egitura, egin beharreko ekintzak, mintegiak, datak eta entregatu beharreko dokumentazioa.
- Ikasleek izan ditzaketan zalantzak argitzea.

Metodologia

Practicumaren aurkezpena irailean egingo da eta hau modu presentzian gauzatuko da. Aurreikusten da, bigarren astean egitea. Ikasleei aurkezpenaren data zehatza eta leku zehatza jakinaraziko zaie, unibertsitateko posta elektronikoen bidez.

Aurkezpenean, ikasturtean zehar praktikaldiaren dinamika zein izango den zehaztuko da, lehen eta bigarren lauhilekoetan dauden aldeak zehaztuta, horren inguruan sor daitezkeen zalantzak argituko dira eta ikasleak eta irakasleak osatuko dituzten talde txikiak aurkeztuko dira.

Aurkezpen horretatik aurrera, praktiken funtzionamendua talde txikietan (ikasleak eta irakasleak) egingo diren mintegien bidez antolatuko da. Erreferentziako tutoreak dei egingo die ikasleei hurrengo ekintza egiteko (hasierako prestakuntza), unibertsitateko postaren bidez.

Ikasleek ez dira harremanetan jarriko bere praktikaldi entitatearekin UPV-EHUko erreferentziako tutorearekin elkartu arte. Hau jarraitzea oso garrantzitsua da, horrela adostu baita praktika entitateekin.

Erreferentziako tutoreak ikasleari jakinaraziko dio noiz eta norekin jarri behar den harremanetan praktika-entitateekin.

Zalantzarik izanez gero, ikasleek erreferentziako tutorearengana jo beharko dute.

3.2. BIGARREN EKINTZA: Praktikaldi prozesuaren hasierako formakuntza

Helburuak

- Praktikaldiaren erakundea eta programa edo zerbitzua Gizarte Hezkuntzaren mapa profesionalean kokatzea.
- Gizarte Hezkuntzako lanbide ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ulertzea eta aplikatzea, Kode Deontologiko Profesionalaren bidez.
- Praktika profesionalaren azterketa eta hausnarketa errazten duten tresnak ezagutzea.

Metodologia

Practicumaren hasieran, hasierako prestakuntza bat egingo da, hiru saio desberdinekin, mintegi formatuaren barruan. Hasierako prestakuntza irailean egingo da, praktika entitarera joan aurretik.

Prestakuntza saioak ikasle bakoitzaren erreferentziako tutoreak zuzenduko ditu, eta taldean egingo dira, mintegi taldea osatzen duten gainerako ikasleekin batera. Prestakuntza honen asmoa ikasleekin praktikak hasten eta garatzen lagun diezaieketen ezagutza eta tresna jakin batzuk lantzea da.

Erreferentziako tutoreak ikasleekin partekatuko du hiru prestakuntzak noiz egingo diren. Prestakuntza bakoitzak jarduera bat izango du, **eta ikasle bakoitzak prestatu eta egin beharko du dagokion mintegia baino lehen**. Jarduera hori osatu, tutoreari eman eta dagokion Practicumaren memorian sartu beharko du. Mintegian, partekatu egingo da eta hartaz hausnartuko da.

1. MINTEGIA -> Entitatearen testuingurua
2. MINTEGIA -> Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala
3. MINTEGIA -> Informazioa biltzeko tresna metodologikoak

Hasierako formakuntza gauzatzeko ezinbestekoa izango da ikasleek prestakuntza horiek alde aurretik prestatzea, Gizarte Hezkuntzako Practicum I-eko Praktiken Prozesuaren **Hasierako Prestakuntza dokumentuaren laguntzarekin**. Dokumentu horretan, prestakuntza bakoitza gaindituzat emateko egin beharko diren edukiak eta entregatzeko modua zehatz-mehatz azaltzen dira.

3.3. HIRUGARREN EKINTZA: Praktikaldiak erakundeetan

Helburuak

- Gizarte Hezkuntza eremuko erakundeak, programak, proiektuak edo zerbitzuak ezagutzea.
- Gizarte Hezkuntzaren errealitate profesionalera hurbiltzea, praktika soziohezitzailea behatuz.
- Gizarte Hezkuntzako lanbide ekintzarekin lotutako gaitasunak praktikan jartzea.

Metodologia

Praktikaldia Practicumaren aurkezpena egin ondoren hasiko da. Aurkeztu bezain pronto, UPV-EHUko erreferentziako tutoreak ikasleei praktika zentroarekin harremanetan jar daitezten esango die, praktika zentroetan aurkezpen eta hasiera eguna adosteko. Honetarako, UPV-EHUko tutoreak praktika-zentroko erreferentziako pertsona eta kontaktua emango dizkie ikasleei. Azpimarratu nahi da **ikasleak ez direla beren praktika zentroarekin harremanetan jarriko fakultateko tutorearen oniritzia izan arte**.

Praktikak egiteko egutegia eta ordutegiak praktiken ezaugarrien eta erakunde laguntzailearen aukeren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, bateragarriak izango dira ikasleek fakultatean egiten duten jarduera akademikoarekin eta prestakuntza. Practicumaren gidan adierazten den bezala, praktika zentroan egin beharreko presentziazko orduak 175 izango dira.

Lehenengo praktikaldi honetan, praktika zentroetan garatutako praktikaren hausnarketa indibidual eta partekatutik abiatuta lan egingo da (beste profesional batzuekin lankidetzan), ikasleak behatzaile parte-hartzailearen rola mantenduz.

Praktikaldia, erakundeak ezartzen duen instruktore batek gainbegiratuko du. Ere, praktiken hasieran egingo den Prestakuntza Proiektuan oinarrituko da. Praktikaren dinamikaren, prozesuaren eta beharren arabera, praktikan zehar egin beharreko zereginak, Prestakuntza Proiektuan hasieran ezarritakoak, doitu ahal izango dira, bereziki bigarren Practicumetik hirugarrenera igarotzean.

3.4. LAUGARREN EKINTZA: Jarraipen eta gogoeta mintegiak

Helburuak

- Praktikaldien prestakuntza prozesua gainbegiratzea.
- Prestakuntza prozesuek izan ditzaketen zalantza eta zailtasunetan ikasleak gidatzea.
- Gizarte Hezkuntzaren errealitate profesionalari buruz hausnartzea.

Metodologia

Jarduera praktikoa osatzeko, praktikaldian zehar jarraipen, gogoeta eta gainbegiratze bilerak egingo dira (mintegiak). Mintegiak fakultatean bertan egingo dira, talde formatuan, praktiketako beste ikasle batzuekin. Hauek UPV-EHUko erreferentziako tutoreak gidatuko ditu.

Practicum I-ean, UPV-EHUko tutoreak ezarritako hiru mintegi egingo dira. Bata urrian, bestea azaroan eta bestea abenduan. Norberaren eta taldearen beharren arabera, mintegi osagarriren bat egin daiteke, hala nola, Practicuma ebaluatzeko edota ixteko mintegiren bat.

Mintegietan, zentroetan garatutako praktikaldiari buruzko gogoeta egingo da, ikasleek izan ditzaketen zailtasunak aztertuko dira eta jarraibide praktikoak proposatuko dira. Mintegiaren talde formatua, hausnarketa eta gogoeta partekatuta ahalbidetuko du beste ikasle batzuekin batera. Halaber, beste testuinguru eta erakunde batzuetan gertatzen diren praktiken esperientzietatik aberastu ahal izango dira.

3.5. BOSTGARREN EKINTZA: Praktikaldi prozesuaren bukaerako txostena

Helburuak

- Praktikaldiaren erakundea, programa, proiektua edo zerbitzua aurkeztea.
- Praktika prozesuan egindako prestakuntza sekuentzia deskribatzea.
- Prestakuntza prozesuari eta egindako ikaskuntzari buruz hausnartzea.

- Praktiketako ikasleen indargune eta ahulgune nagusiak identifikatzea.
- Praktikaldiaren alderdi positiboak eta negatiboak adieraztea.

Metodologia

Amaierako Memoria bi dokumentu izango ditu: memoria bat eta poster bat.

Bi dokumentu hauek egiteko eta entregatzeko modua, zehaztasunez jarraipen mintegietan aurkeztuko da. Entregatze data, urtarrilaren bigarren astea izango da.

1. Memoria:

Memoria baliagarria izango da praktiken erakundea, proiektua, programa eta zerbitzua aurkezteko; eta egindako prestakuntza-prozesua deskribatzeko eta honen inguruko hausnarketa egiteko.

Memoriaren egitura orientatiboa

1. Memoriaren aurkezpena
2. Practicum erakundearen eta zerbitzu, proiektu edo programaren aurkezpena
 - 2.1. Praktika erakundearen testuingurua
 - 2.2. Praktika erakundeak garatzen dituen zerbitzuak, programak eta proiektuak
 - 2.3. Praktika garatzen den zerbitzua, programa edo proiektuaren aurkezpena
 - 2.3.1. Zer? Zerbitzuaren, proiektuaren edo programaren izena
 - 2.3.2. Zergatik? Fundamentazioa, beharrezana eta testuingurua (adibidez, Gizarte Zerbitzuen barruan kokatzen bada, 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko legea aipatu beharko da. Edo Haurtzaroarekin eta Nerabezaroarekin egindako esku-hartzean kokatzen bada, aipatu otsailaren 15eko 2/2024 Legea, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzkoa).
 - 2.3.3. Zertarako? Helburuak
 - 2.3.4. Norentzat? Hartzaileak
 - 2.3.5. Nola? Esku-hartze metodologia
 - 2.3.6. Nortzuk? Heziketa taldearen profila. Funtzioak eta gaitasunak (Gizarte Hezitzaileen funtzioen eta gaitasunen katalogoa, ASEDES, 2007).
 - 2.3.7. Norekin? Beste eragile batzuekiko koordinazioa
 - 2.3.8. Zerekin? Baliabide materialak
 - 2.3.9. Noiz? Denboralizazioa
3. Practicum prozesuaren deskribapena:
 - 3.1. Zereginen, funtzioen eta egindako dedikazioaren deskribapena, prestakuntza-proiektuarekin alderatuta.
 - 3.2. Hasierako Prestakuntza Proiektuarekiko aldaketak
4. Practicum prozesuaren analisia eta hausnarketa:
 - 4.1. Praktikan garatutako tresna-ekintzekin batera landutako eta garatutako lanbide-gaitasunak.
 - 4.2. Hautemandako sendotasunak/zailtasunak eta hobekuntza pertsonalerako bide

posibleak

4.3. Praktiken alderdi positiboak eta hobetu daitezkeenak

4.4. Deontologia profesionala praktketan. Non ikus daiteke aplikatua?

** Puntu hau lantzeko, gomendagarria izango da Egunerokoa irakurtzea eta aztertzea.*

5. Practicum I-ean hasierako prestakuntzan landutako materiala

5.1. Lehenengo Formakuntzako materiala: praktikak kokatzen diren erakundearen testuingurua

5.2. Bigarren Formakuntzako materiala: Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala

5.3. Hirugarren Formakuntzako materiala: informazioa biltzeko tresna metodologikoak

* Memoria urtarrilaren bigarren astean entregatuko da

2. Posterra

Posterrak, bestalde, modu sintetikoan jasoko ditu egindako praktikaren ezaugarri nagusiak. Posterrak datorren urtean lehen mailako praktikak egingo dituzten eta praktikak aukeratzeko prozesuan egongo diren ikasleei, praktiken aukeraketan orientabide gisa balioko die. Posterren aurkezpena, azoka gisa, Practicum I aurkezten den astean egingo da (apirilaren amaieran,), non ikaslegoa derrigorrez parte-hartu behar duen

Posterraren eduki orientatiboak

1. Practicum erakundearen eta zerbitzu, proiektu edo programaren aurkezpena

2. Praktika garatzen den zerbitzua, programa edo proiektuaren aurkezpena

2.1. Zer? Zerbitzuaren, proiektuaren edo programaren izena

2.2. Zergatik? Fundamentazioa, beharizana eta testuingurua (adibidez, 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa).

2.3. Zertarako? Helburuak

2.4. Norentzat? Hartzaileak

2.5. Nola? Esku-hartze metodologia

2.6. Nortzuk? Heziketa taldearen profila. Funtzioak eta gaitasunak (Gizarte Hezitzaileen funtzioen eta gaitasunen katalogoa, ASEDES, 2007).

2.7. Norekin? Beste eragile batzuekiko koordinazioa

2.8. Zerekin? Baliabide materialak

2.9. Noiz? Denboralizazioa

3. Indarguneak eta ahulguneak

Posterraren entrega data: urtarrilaren bigarren astea

4. PRACTICUMEAN ZEHAR BETE BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Practicumean zehar bete beharreko eranskinak

Eranskinak nahitaez bete beharreko dokumentuak dira, eta ikasleen ardura da horiek deskargatzea eta entregatzea. Era berean, entregatu eta bete beharreko dokumentazioa, practicumaren garapen egokirako kalitatea eta irizpide komunak izatea bermatzen du.

Praktikak hasi aurretik:

Ikasleek XI. eranskina eta Konpromezu Orria inprimatu eta sinatu behar dituzte praktika zentrorra joan aurretik. Bi agiri hauek praktika zentzoko erreferentziako **instruktoeari entregatu beharko zaizkio lehenengo egunean.**

Ikasleek beren praktikak haurtzaroaren eta nerabezeroaren testuinguruan eginen dituzten kasuetan, kontuan izan beharko dute **Sexu Delituen Agiri** negatiboa lortu behar dutela praktikak hasi ahal izateko, praktiketako entitateak eskatuko duelako. berarentzat bera.

Praktiken hasieran:

Praktikak hastean, ikasleek praktiketako ikaslearen **Prestakuntza Proiektua** beraien **tutoreei entregatu** beharko diete. Dokumentu hau **(1) zentroko instruktoreek eta (2) praktiketako ikasleek bete eta sinatu behar dute.** Ondoren, **Prestakuntza Proiektua** UPV/EHUko tutoreak berrikusi beharko dute ikasleekin batera, jaso aurretik.

Prestakuntza-proiektuaren dokumentua bete eta berrikusi ondoren, UPV-EHUko erreferentziako tutoreari emango zaio praktiken hasieran.

Praktikak amaitzean:

Praktikak amaitzeko, praktika zentzoko **instruktoreak IV. Eranskina bete eta sinatu beharko du,** eta **UPV/EHUko tutoreari helarazi.** Eranskin honek egindako praktikaren deskribapena, egindako jarduerak edo zereginak eta praktika prozesuaren balorazioa jasotzen ditu.

Praktiketako **ikasleek**, bestalde, **V. ERANSKINA** bete beharko dute, praktikaren amaierako memoriari buruzko eranskina. Bertan, praktikan zehar egindako zereginak eta praktikaren ebaluazio jasoko da. Eranskin hau UPV-EHUko tutoreari jasoko du, ondoren, tutoreak, practicumaren Bulegoan entregatu ahal izateko.

Praktiketako **ikasleek VI. Eranskina** ere bete beharko dute, egindako praktikak justifikatzen dituen, eta UPV-EHUko tutoreari eman, sinatu dezan. Eranskin hau erabilgarria izan daiteke ikasleek beren curriculumean sar dezaten.

Instruktoreak praktiketako tutoretzaren ziurtagiria nahi badu, practicumeko idazkaritzari eskatu behar dio posta elektronikoko bidez: hefa.practicum@ehu.eus

Aipatutako eranskin guztiak hemen daude eskuragarri:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gizarte-hezkuntza->

[pedagogia-eta-gizarte-antropologia-graduak](#)

5. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa egiteko, ikasleek fakultatean egin beharreko jardueretan eta praktika zentroan egindako lana eta prozesua kontuan hartuko dira.

Garrantzitsua da adieraztea, Practicumaren ebaluazio positiboa izateko, ezinbestekoa dela fakultatean garatutako prozesua (tutoreak ebaluatutako 5 puntu) eta praktika zentroan garatutakoa (irakasleak ebaluatutako 5 puntu) gainditzea.

Practicum II-aren ebaluazioa urtarrilean egingo da eta Practicum III-arena maiatzean.

5.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa (5 puntu)

Hasierako prestakuntzan eta mintegietan parte hartzea puntuazio espezifiko batekin aurreikusita ez badago ere (parte-hartzea nahitaezkoa da), azken horrek instruktoreak emandako azken nota penalizatu ahal izango du, tutorearen irizpidearen eta dagokion justifikazioaren arabera.

	Ebaluazio irizpideak	Punt. Gehien.
Hasierako Formakun.	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hasierako prestakuntzari dagozkion dokumentuen egokitasuna eta kalitatea 	1
Mintegiak	<ul style="list-style-type: none"> ○ Mintegietan parte hartzea ○ Mintegietan parte hartzea modu aktiboan, kritikoan eta errespetuzkoan ○ Ahozko adierazpenaren egokitasuna, mintegiaren prestakuntza testuinguruan. ○ Lanbidearen berezko hiztegia zuzen erabiltzea. ○ Egindako praktiken azterketan eta hausnarketan sakontzea. 	1
Posterra	<ul style="list-style-type: none"> ○ Posterraren kalitatea eta entrega ○ Posterraren egituran markatutako edukietara irizpideetara eta egiturara egokitzea. 	1
Praktiketako Memoria	<ul style="list-style-type: none"> ○ Memoriaren kalitatea. ○ Memoriaren edukietara, irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia memoriaren puntuak aurkeztean (dokumentuaren idazketa unibertsitatearen eskakizun-mailari egokituko zaio) ○ Lanbidearen berezko hiztegia zuzen erabiltzea. ○ Egindako praktiken azterketan eta hausnarketan sakontzea. 	2

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Garatutako lan-arloan Gizarte Hezkuntzako profesionalaren rola egokitzea. ○ Lanbide-profilaren analisia eta hausnarketa, karreraren zehar landutako prestakuntza akademikoaren esparruan. 	
GUZTIRA		5

5.2. Praktika zentroko instruktorearen ebaluazioa (5 puntu)

Praktika zentroko instruktorearen ebaluazioa IV. Eranskinean ezarritako balorazio adierazleen arabera egingo da.

Practicuma II-a amaitutakoan, praktika-zentroko instruktoreak ikasle bakoitzaren ebaluazio txostena bete beharko du (IV. eranskina)

6. BIBLIOGRAFIA

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzkoa

AGUILAR, M.J. y ANDER-EGG, E. (1992). *Evaluación de servicios y programas sociales*. Siglo XXI.

ASEDES y CGCEES (2007): Documentos profesionalizadores: Definición de la Educación Social. Código deontológico del educador y la educadora social. Catálogo de funciones y competencias de la educadora y el educador social. <http://www.eduso.net/archivo/docdow.php?id=143>

GARCÍA HERRERO, G (1996). *Diseño y evaluación de proyectos sociales*. Certeza.

COMISIÓN DE PRÁCTICAS (2012). *Guía del Practicum de Educación Social*. HEFA. UPV/EHU

http://www.filosofiahezkuntzazientziak.ehu.es/p246content/es/contenidos/calendario/calendario_practicum/es_cal/gidas.html

PÉREZ CAMPANERO, M.P. (1991). *Cómo detectar las necesidades de intervención socioeducativa*. Narcea.

MARTÍN GONZÁLEZ, M.T. et al (2006). *El Practicum en las titulaciones de Educación: Reflexiones y experiencias*. Dykinson S.L.